



AGINDUA, OSASUNEKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA EGITEN BAITA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO OSPITALEETAKO FARMAZIA-ZERBITZUAK ERATZEN DITUEN IRAILAREN 1EKO 243/1992 DEKRETUA ALDATZEKO DEKRETU-PROIEKTUAREN GAINEAN.

---

Osasun Sailak xedapen orokor bat egingo du, haren bidez aldatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetako farmazia-zerbitzuak eratzen dituen irailaren 1eko 243/1992 Dekretua.

Arau-xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakiaren bidez, aurretiazko kontsultaren izapidea erabaki zen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 133. artikulua 1. apartatua ezarritakoa betetzeko, helburu izanik herritarrekiko elkarreagin-izapideari bide ematea, zeina testu juridiko arauemaile bat onartu aurretik egin beharrekoa baita.

Kontsultak honako alderdi hauei buruzkoa izan behar du:

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.
- Arauaren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukerak.

Horregatik guztiagatik, hogeit hamar egun balioduneko epea ezartzen da, xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiek iritzia emateko aukera izan dezaten. Izapide hau araua gauzatu aurretik egiten da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua arautzen duen hasiera-fasearen barruan.

Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 319/2024 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehena.- Aldez aurreko kontsulta publikoa egitea Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetako farmazia-zerbitzuak eratzen dituen irailaren 1eko 243/1992 Dekretua aldatzeko xedapen orokor baten proiektuaren gainean, xedapena landu aurretik.

Bigarrena.- Hogeit hamar egun balioduneko epea ezartzea, arauak ukitzen dituen herritarrek, entitateek eta erakundeek, hala irizten badiote, agindu honen eranskinean adierazitakoen gainean daukaten iritzia azaldu dezaten, Agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Izpta.: ALBERTO MARTINEZ RUIZ  
OSASUNEKO SAILBURUA

## ERANSKINA

1.- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetako farmazia-zerbitzuak eratzen dituen irailaren 1eko 243/1992 Dekretuaren testua oso zaharkituta geratu da, indarrean dauden arau-testuak eta argitaratutako gida zientifikoak aintzakotzat hartuta. Testu berri bat idatzita, araua egungo erregulaziora eta aurrerapen teknologiko eta zientifikoetara egokitu nahi da, arreta eta prestazio farmazeutikoa modu seguru, eraginkor eta efizientean egingo dela bermatzeko hartara.

2.- Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.

EAEko Ordenazio Farmazeutikorako 11/1994 Legearen VI. kapituluak arau-garapena izan du zentro soziosanitarioetarako, baina ez da gauza bera gertatu ospitaleetako farmazia-zerbitzuetarako. Horregatik, beharrezkotzat jotzen da arau hau bultzatzea.

3.- Egin nahi den arau-proiektuaren helburuak.

- Ordenazio Farmazeutikorako 11/1994 Legearen VI. kapituluak garatzea, ospitaleetako farmazia-zerbitzuei dagokienez, eta gai horretan indarrean dagoen araudira egokitzea.
- Ospitale-farmaziako zerbitzuek egiaztapena izatea, zatikapen-eragiketarako, dosiak pertsonalizatzeko eta sendagaiak birmanipulatzeko eta eraldatzeko bestelako eragiketarako, halako moldez non bermatuko baita eragiketa horiek egingo diren ospitale-farmaziako zerbitzuek zehatz betetzen dituztela kasuari aplikatu dakizkiokeen jardunbide egokiko gida teknikoak.
- Kontuan hartzea Formula magistralak eta prestakin ofizinalak behar bezala egiteko arauari buruzko 175/2001 Errege Dekretuan jasotako arauak aplikatzeko gidan jasotakoa.
- Farmazia-zerbitzuen eskaintza eta gizartean izandako aldaketak islatzea, eta bermatzea farmazia-arreta eta -prestazioa horretarako behar diren aurrerapen teknologiko eta zientifiko seguru, eraginkor eta efizienteen arabera egiten dela.
- Ospitaleko sendagaiak modu ez-presentzian dispensatzeko sistema txertatzea, betiere ospitaleko farmazialariaren erantzukizunpean eta jardun profesionalaren pean, sendagaiak pazientearen etxean bertan modu informatuan entregatzeko kanalen bidez edo hurbiltasuneko eta jarraitutasuneko dispensazio-gailu automatizatuen bidez.
- Ospitaleko Farmaziari esleitutako eginkizunak egungo egoerara egokitzea eta garapen profesionalen izandako aldaketak islatzea.
- Farmazia anbulatorioa sartzeta.
- U84 asistentzia-eskaintza (sendagaien gordailua) garatzea, jardun profesionala gauzatu ahal izateko sendagaiak behar dituzten ospitaleratzetik gabeko zentro eta establezimendu sanitarioetan.

- Erakunde Sanitario Integratuaren kontzeptua kontuan hartzea, eta ospitaleetako eta lehen mailako arretako farmazia-arreta sartzea ospitaleetako farmazia-zerbitzuetan. Apartatu honetan, beharrezkoa da hasierako balorazioa egitea zehazteko ea beharrezkoa den edo ez batera garatzea 11/1994 Legearen V. kapitulua, Euskal Osasun Sistemako osasun-zentroetako eta lehen mailako arretako osasun-egituretako farmazia-zerbitzuei buruzkoa berau; hori guztia, ospitaleetako farmazia-arretaren eta lehen mailako arretako egituren arteko harremanak arautu daitezkeela eta.
- Ospitaleko Farmazia Zerbitzuetan behar bezala bereizi behar diren eremu edo espazio fisikoak sartzea.

4.- Izan litezkeen bestelako aukerak.

Aurreko apartatuetan adierazitakoak kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da dekretu-proiektu hau egitea, ez baita bestelako irtenbiderik hautematen.